

BEÑAT ONAINDIA GOÑI jaunak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko uztailaren 1ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

11.- 2014-KO ASEGURU KONTRATUEN BITARTEKARITZA ETA AHOHKULARITZA ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.

Xedea

Bermeoko Udalak 2014rako aseguru pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzeke espedienteari hasiera emotea eta baldintza-agiriak onartzea.

Argudioak

Lehenengoa: 2009ko abenduaren 29an Alkatetzaren 1.612 Dekretuz aseguru pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratua AON Gil y Carvajal enpreseari esleitu jakon.

Bigarrena: Kontratuaren iraupena 2010eko urtarrilaren 1eko 00:00 orduetatik 2011ko abenduaren 31ko 24:00 orduetara bitartean zan eta beste urte bitan luzatzeko era egoan.

Beraz lau urteak igarota, 2013ko abenduaren 31n amaituko da kontratua eta ez dago luzatzerik.

Hirugarrena: Legez derrigortuta kasu batzuetan derrigorrezkoa da aseguruak kontratatzea, beste batzuetan udalak ordaindu beharreko balizko kalte-ordainak eta jasan daikezan kalteak estaltzea komeni da. Baina udalaren jardueria aseguratzaileria izatea ez dan ezker eta aseguru kontratuak kudeatzeko baliabiderik ez daukan ezker, aseguru kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzea ezinbestekoa da.

Laugarrena: Kontratuaren xedea hau da: Bermeoko Udalak 2014rako aseguru pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzea honako aseguru pribatuen kudeaketarako:

- Erantzukizun zibileko aseguru
- Kalte materialen aseguru
- Ibilgailuen aseguru
- Defentsa juridikoko aseguru
- Korporazinoko kideen bizitza aseguru
- Udal eta Kirol Patronatuko beharginen bizitza segurua

- Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru
- Itsasontzietako kroskoen aseguru
- Aita Guria itsasontziko ekipamendua
- Udaleko eta bere organismo autonomoetako korporazino kideen eta langileen erantzukizun zibilaren aseguru (Laburbilduta: erabagiak hartzen dabezenen erantzukizun zibilaren aseguru)

Bosgarrena: 2014rako aurreikusten dan kontratuaren prezioa 189.330,57 €-koa da eta lau urtetarako 757.322,32 €-koa. Hortik honela sailkatuta dago:

Espediente mota: Administrazio kontratazinoa. Kontratu pribatua.

Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura irekia, erregulazino harmonizaduari atxekituta.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: AON Gil y Carvajal enpreseagaz dagoan kontratua 2013ko abenduaren 31n amaituko dala aldarrikatzea.

BIGARRENA: Bermeoko Udalak 2014rako aseguru pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratazeko espedienteari hasiera emotea eta erantsitako baldintza-agiri honeek onartzea:

- ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.
- BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko uztailaren 5ean.

ONETSIA
ALKATEA